

17. KULTURA, KOMUNIKAZIO ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

Giza eskubideak defendatzeko erronkak eta estrategiak kriminalizazio-eta errepresio-garaietan



EKAINAK 1 - 2
BIZKAIA ARETOA - EHU

EHU Uda Ikastaroak 2026



CINE
INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2026 BILBAO

URRIAREN 15etik 22ra

Giza eskubideak defendatzeko erronkak eta estrategiak kriminalizazio-eta errepresio-garaietan

Egunak: ekainak 1 eta 2

Lekua: Baroja gela, Bizkaia Aretoa, Bilbo

Hizkuntza: gaztelania, eta aldi bereko itzulpena euskarara eta ingelesa

+info: info@kcd-ongd.org

Errelatorea: Andrea Ruiz Balzola (Begirune fundazioa)

Historian zehar, konkista sozialak ez dira bere-berez iritsi; konkistatu egin behar izan ditugu. Eta, noski, ezin ditugu inoiz behin betikotzat jo.

Konkistatu egin behar izan ditugu, defendatu eta, sarritan, berriro konkistatu. Haiek defendatu dituzten milaka pertsonak biziak, erbesteaz edo sufrimenduaz ordaindu dute.

Munduaren agertoki berrian, giza eskubideak defendatzen dituztenek gero eta erronka korapilatsu eta kezkarriagoak dituzte aurrez aurre. Munduko hainbat eskualdetan, areagotu egin dira oinarritzko eskubideen, lurraldearen edo justizia sozialaren alde egiten duten pertsona eta erakundeen kontrako kriminalizazio-, jazarpen- eta estigmatizazio-prozesuak.

Kasu askotan, pertsona horiek erailketa selektiboak, desagertze behartuak, heriotza-mehatxuak —beren zein senitartekoen aurkakoak—, eraso fisikoak eta atentatuak jasaten dituzte.

Baina, horiez gain, beste tresna batzuk ere erabiltzen dira haien aurka; adibidez, *lawfare* delakoa (gerra juridikoa) —epaileak eta fiskalak defendatzaileen aurka instrumentalizatzen dituena—, bai eta pertsona horien ekintzak zelatatu, kontrolatu eta ahultzeko teknologiak ere.

Ez gaude une neutro batean. Garai-aldaketa baten aurrean gaude, eta testuinguru horrek zuzenean eragiten die mundu osoko gizarteei. Beste lurralde batzuetan gertatzen dena ez da gai bakarra; izan ere, kontuan hartu behar dugu nola eratzen diren protesta kriminalizatzea, eskubideak murriztea eta nazioarteko elkartasuna ahultzea ekar dezaketen diskurtsoak Europan; Mozal Legea da horren adibidea.

Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEtik Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko 17. Nazioarteko Topaketa proposatzen dugu, EHUKo Uda Ikastaroen esparruan, hausnarke-ta kritikoa eta eraikuntza kolektiboa sustatzeko gunea den alde-tik, 2030 Agendaren eta, bereziki, 16. GJHaren ildotik.

Hitzaldien, mahai-inguruen eta Palestinako, Mendebaldeko Saharako, Mexikoko, El Salvadorreko, Kolonbiako eta Euskadiko esperientzia zehatzen bidez, Hegoalde Globalaren eta Iparraldearen arteko babes-, erresistentzia- eta artikulazio-estrategiak partekatuko ditugu, kulturak eta komunikazioak gizartea eraldatzeko funtsezko tresna gisa duten zereginaren garrantzia nabarmenduta.

Aukera baliatuz, denon artean funtsezko galderak egin nahi ditugu: nola babes ditzakegu eskubideak defendatzen dituztenak?, nola indar ditzakegu laguntza- eta elkartasun-sareak?, nola lor dezakegu borroka horiek jasagarriak izatea?, zer egin dezakegu nork bere testuingurutik?

Hezkuntzaren arlokoak, elkarteak, profesionalak eta herritarrak gonbidatzen ditugu kulturarteko elkarrizketa konprometitu eta eraldatzaile honetan parte hartzera.

Topaketa hau bizitzaren, duintasunaren eta Denon Ongi Globalaren aldeko apustu sendoa da.

Zatoz!

J. Carlos Vázquez Velasco

Zuzendaria

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinen Nazioarteko Jaialdia

EGITARAUA

EKAINAK 1

9:15 - 9:30

ARTE-HARTZAILEEN ERREGISTROA

9:30 - 10:00

TOPAKETAREN INAUGURAZIOA ERAKUNDEEKIN

EHU · KCD GGKE · eLankidetzeta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia · Bizkaiako Foru Aldundia · Gipuzkoako Foru Aldundia · Bilboko Udala.

10:00 - 10:30

Inaugurazio-hitzaldia:

ESKUBIDEAK ATZERA KA DOAZEN TESTUINGURU OROKORRAREN AZTERKETA

- Irantzu Mendia Azkue. HEGOA Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko zuzendaria eta Soziologia eta Gizarte Lan Saileko irakaslea (EHU)
-

10:30 - 11:30

Kazetaritza-elkarrizketa:

HERRIEN ERRESISTENTZIAK GIZA ESKUBIDEAK SISTEMATIKOKI URRATZEN DIREN TESTUINGURUETAN: PALESTINAREN ETA SAHARAREN KASUAK

Dinamizatzailea Bárbara Ruiz Balzola, UNRWA Euskadiko Ordezkarria

- El Ghalia Djimi. Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatuko giza eskubideen defendatzailea eta ISACOMeko (Marokoren okupazioaren aurkako Saharako Instantziako) zuzendaritza-batzordeko kidea
 - Shahd Abusalama. Akademiko, aktibista eta artista palestinarra
-

11:30 - 12:00

KAFE-ETENALDIA

12:00 - 13:15

Solasaldia:

**EL SALVADOREN KASUAREN AZTERKETA: ERREPRESIOAREN
ETA KRIMINALIZAZIOAREN AURREAN ESKUBIDEAK
DEFENDATZEA**

Dinamizatzailea baieztatzeko

- **Aranza Santos.** Emakume trans feminista eta LGBTIQ+ aktibista salvadortarra, askotariko pertsonentzako osasun integralean esperientzia duena. Eragin politikoan dihardu, interseksionalitateko eta justizia sozialeko ikuspegia duten legeak sustatzeko
- **Judith Barrera.** Komunikatzailea eta ingurumen- eskubideen aldeko aktibista. Emakume nekazarien lurrerako eskubidearen defendatzailea.
- **Loida Martínez Avelar.** El Salvadorreko Factum aldizkariko ikerketa-kazetaria, 2025ean Gabo saria irabazi zuena. Ustelkeriari eta giza eskubideen urraketei buruzko ikerketetan espezializatutako unibertsitateko katedraduna.

13:15 - 14:30

Solasaldia:

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO
ESTRATEGIAK**

Dinamizatzailea Verónica Portell, kazetaria

- **Sebastián Escobar Uribe.** José Alvear Restrepo abokatu-kolektiboko (CAJAReko) presidentea. Abokatu, Medellingo Unibertsitate Autonomo Latinoamerikarrean
- **Verónica Álvarez García.** Zehar-Errefuxiatuekin erakundeko Eraginaren eta Parte-hartze Sozialaren arloa. Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programako (NAREko) koordinatzaile teknikoa
- **Eneko Gerrikabeitia Zenarrutzabeitia.** Mundubat elkarteko Gizarte Ekintzako koordinatzailea (Martin Etxea)

EKAINAK 2

10:00 - 11:15

Solasaldia:

**KOMUNIKAZIOA ESKUBIDEEN LURRALDE: BEGIRADA
INTERSEKZIONALA DUEN KOMUNIKAZIO
KONTRAHEGEMONIKOA LORTZEKO ERRONKAK**

Dinamizatzailea: Loida Martínez Avelar, El Salvadorreko Factum aldizkariko ikerketa-kazetaria.

- **Guillermo Monforte Maurizio.** Ojo de Agua Comunicación erakundeko bazkide sortzailea
- **M^a Ángeles Fernández González.** Pikara Magazine aldizkariko koordinatzailea
- **José Martínez.** Alianza Centroamericana Trabajando Unida por el Agua y la Defensa de Derechos (ACTUAD) elkarteko koordinatzaile estrategikoa

11:15 - 11:45

KAFE-ETENALDIA

11:45 - 13:00

Solasaldia:

MEMORIA HISTORIKOA, ERREPARAZIORAKO ETA EZ ERREPIKATZEKO ESTRATEGIA

Dinamizatzailea Ainara Larrondo, Gureiker taldeko arduraduna eta kazetaria (EHU)

- **Sebastián Escobar Uribe.** José Alvear Restrepo abokatu-kolektiboko (CAJAReko) presidentea
- **Denise Géraldine Brunet.** Equipo Maíz elkarteko zuzendaria
- **María Oianguren Idigoras.** Gernika Gogoratuz – Bakearen Aldeko Aztertegiko zuzendaria

13:00 - 13:30

Hitzaldia:

INTENTSITATE TXIKIKO ESTRATEGIA SOZIALA (ESBI). NOLA EUTSI ETA AURRERA EGINARAZI BORROKEI ZIURGABETASUN ETA KRIMINALIZAZIO GARAIETAN

- **Juan Carlos Vázquez.** KCD GGKEren zuzendaria

13:30 - 14:00

AMAIERA ETA ONDORIOAK

- **Joseba Villa.** KCD GGKEko gizarte-eraldaketarako hezkuntzako teknikaria

14:00 - 14:30

PERFORMANCE ARTISTIKOA

- **Shahd Abusalama.**
PALESTINAKO DABKE DANTZARI BURUZKO LANTEGIA: IDENTITATEKO, ERRESISTENTZIAKO ETA ELKARTASUNEN DANTZA SOZIALA

PARTE-HARTZAILEAK



IRANTZU MENDIA AZKUE

(Euskadi)

HEGOA Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko zuzendaria eta Soziologia eta Gizarte Lan Saileko irakaslea (EHU).



BÁRBARA RUIZ BALZOLA

(Euskadi)

UNRWA Euskadiko Ordezkarria



EL GHALIA DJIMI

(Mendebaldeko Sahara)

Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatuko giza eskubideen defendatzailea eta ISACOMeko (Marokoren okupazioaren aurkako Saharako Instantziako) zuzendaritza-batzordeko kidea.



SHAHD ABUSALAMA

(Palestina)

Akademiko, aktibista eta artista palestinarra.



ARANZA SANTOS

(El Salvador)

Emakume trans feminista eta LGBTIQ+ aktibista salvadortarra, askotariko pertsonentzako osasun integralean esperientzia duena. Eragin politikoan dihardu, interseksionalitateko eta justizia sozialeko ikuspegia duten legeak sustatzeko.



JUDITH BARRERA

(El Salvador)

Komunikatzailea eta ingurumen-
eskubideen aldeko aktibista.
Emakume nekazarien lurrerako
eskubidearen defendatzailea.



LOIDA MARTÍNEZ AVELAR

(El Salvador)

El Salvadorreko Factum
aldizkariko ikerketa-kazetaria,
2025ean Gabo saria irabazi
zuen. Ustelkeriari eta giza
eskubideen urraketeki buruzko
ikerketetan espezializatutako
unibertsitateko katedraduna.



SEBASTIÁN ESCOBAR URIBE

(Kolonbia)

José Alvear Restrepo abokatu-
kolektiboko (CAJAReko)
presidentea. Abokatua,
Medellingo Unibertsitate
Autonomo Latinoamerikarrean.



VERÓNICA PORTELL

(Euskadi)
Kazetaria.




VERÓNICA ÁLVAREZ GARCÍA

(Euskadi)
Zehar-Errefuxiatuekin
erakundeko Eraginaren eta
Parte-hartze Sozialaren arloa.
Giza Eskubideen Defendatzaileak
Babesteko Euskal Programako
(NAREko) koordinatzaile
teknikoa.



ENEKO GERRIKABEITIA ZENARRUTZABEITIA

(Euskadi)
Mundubat elkarteko Gizarte
Ekintzako koordinatzailea
(Martin Etxea).




GUILLERMO MONFORTE MAURIZIO

(Mexiko)
Ojo de Agua Comunicación
erakundeko bazkide sortzailea.



**Mª ÁNGELES FERNÁNDEZ
GONZÁLEZ**

(Espainia)
Pikara Magazine aldizkariko
koordinatzailea.



JOSÉ MARTÍNEZ

(Erdialdeko Amerika)
Alianza Centroamericana
Trabajando Unida por
el Agua y la Defensa de
Derechos (ACTUAD) elkarteko
koordinatzaile estrategikoa.



AINARA LARRONDO

(Euskadi)
Gureiker taldeko arduraduna eta
kazetaria (EHU).



DENISE GÉRALDINE BRUNET

(El Salvador)
Directora Asociación Equipo
Maíz.



MARÍA OIANGUREN IDIGORAS

(Euskal Herria)

Gernika Gogoratuz – Bakearen
Aldeko Aztertegiko zuzendaria.



JUAN CARLOS VÁZQUEZ

(Euskadi)

KCD GGKEren zuzendaria.



JOSEBA VILLA

(Euskadi)

KCD GGKEko gizarte-
eraldaketarako hezkuntzako
teknikaria.